

EKONOMIARAKO SARRERA

OINARRIZKO KONTZEPTUAK

- **EKONOMIA:** "OIKOS-NOMIA" / etxearen kudeaketa
- **ZERTAZ ARDURATZEN DA?** Baliabide urriak nola kudeatzen diren aztertzen du
- **ARAZO EKONOMIKOAK:** baliabideak urriak direlako sortzen dira

GALDERA EKONOMIKO NAGUSIAK:

- Zer eta zenbat ekoiztu/kontsumitu?
- Nola produzitu?
- Norentzat produzitu?

EKONOMIA ZIENTZIA? / GIZARTE ZIENTZIA

-Modelo ekonomikoak errealitatearen sinplifikazioa dira.

-Bakoitzak norberaren interesak lortu nahi ditu.

-Oinarrizko ideiak:

- **Urritasuna:** aukerak mugatuak dira.
- **Eraginkortasuna:** baliabideak urriak direnez, probetxu ahalik eta handiena bilatu behar zaie
- **Ekitatea:** banaketa berdina

● **ANALISI EKONOMIKOA**

- **MAKROEKONOMIA:** Ekonomia bere osotasunean aztertzen du. (Ekonomia positiboa)
- **MIKROEKONOMIA:** Agente desberdinen azterketa: kontsumitzaileak, enpresak, estatua... (Adibidez: globalizazioa, enplegua, langabezia...)

EKONOMIA POSITIBOA: Ekonomiak nola funtzionatzen duen azaltzen du azalpen objektiboak emanaz.

EKONOMIA NORMATIBOA: Nola funtzionatu beharko lukeen azaltzen du irizpide etiko, politiko edo ideologikoetan oinarrituz.

EKONOMIA POSITIBOA	EKONOMIA NORMATIBOA
Azalpen objektiboa	Irizpideak
Deskribapena	Ikuspegiak
Aurreanak	Erabakiak hartzeko irizpideak
Egia / Gezurra	Politika ekonomikoaren neurriak
Aurreikuspenak	

Beharrianak asetzeko ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dira.

- **Lehen mailako beharrak:** Iraupenarekin lotuta: janaria, jantziak...
- **Bigarren mailako beharrak:** Ez dira nahitaezkoak. Asetzeak ongizatea handitzen du eta aldatu egiten dira mailaren edota testuinguruaren arabera.

Gure ekonomietan gauza batzuk ekoizten dira eta beste batzuk ez.

- **ONDASUNAK:** Beharrianak asetzeko balio duen edozein tresna ukigarri.
- **ZERBITZUAK:** Ez dira ukigarriak.

- Ekoizteko baliabideak behar dira.

-Baliabidea: beste ondasun eta zerbitzu batzuk ekoizteko balio duen edozein tresna.

-Askotan **ekoizpen faktoreak** esaten zaie.

- **Ekoizpen faktoreak:**

-Lurra

-Lana

-Kapitala

EKOIZPEN FAKTOREAK

- Hasiera batean oinarrizko faktore naturala "lur" faktorea. Gizakien ahaleginaren bidez, ondasun ekonomikoak (nekazaritza ondasunak) lortzen ziren.
-Gaur egun lur faktorearen ordez beste bat erabiltzen da: "**faktore naturalak**": nekazaritza eta meatz-aktibitateak ere (petrolio, ikatza,...) barneratzen dituztenak.
- "**Lan faktorea**": gizakiak ondasun eta zerbitzuen ekoizpenerako egiten duen ahalegina.
- "**Kapital faktorea**": Beste ondasun eta zerbitzu batzuk ekoizteko erabiltzen den gizakiek egindako edozein baliabide ekonomiko.


	HELBURUA
KONTSUMO ONDASUNAK AMAIERAKO ONDASUNAK	-Ongizatea -Kontsumoa -Nahiak asetzea -Zerbitzuak ematea -Adib.: autoa, etxebizitza...
BITARTEKO ONDASUNAK KAPITAL ONDASUNAK EKOIZPEN FAKTOREAK	-Ondasun berriak lortzea -Produktzioa -Osagaiak -Adib.: gurpila, makineria...

Ekonomia testu-liburu gehienetan definizio hau:

*“Ekonomia gizarte-zientzia bat da, non banakoak eta gizarteak dituzten **baliabide urriak** ondasun eta zerbitzuak ekoizteko erabiltzen dituzten, **produktu horien truke** eta **banaketaren bidez** beren **beharrizanak** ahalik eta ondoen asetzeko.”*

URRITASUNAK, beraz, **AUKERATZERA** behartzen gaitu.

- Ekonomiak honako hau aztertzen du:
 - Erabilera anitzak eduki ditzaketen baliabide urriak nola erabili behar diren.
 - Giza portaerak aztertzen ditu: zer aukeraketa egiten den baliabide urriak eta beharrizan amaigabeen artean.
- Lurra sektore bati esleitu behar zaio: eraikuntza pribatuari, eraikuntza publikoari, energiaren sektoreari, etab. – Lurra urria denez, sektore bati esleituz gero, beste bati kentzen zaio.
- Erabaki guztiek euren **AUKERA KOSTUA** daukate: ekintza bat gauzatzeko zeri egiten diogun uko.
- Baliabideak, urriak izanik, ondo esleitu behar dira: ahalik eta probetxu handiena ateratzeko. Horrela bada efizientea dela esaten da.
- Sistema ekonomikoa: gizarteen baliabideak esleitzeko metodoa
- Ekoizpen ahalmenaren muga grafiko bat da, zera erakusten duena: teknologia eta produkzio faktore eskuragarriak erabiliz zeintzuk diren output-aren konbinazio posible guztiak.



BIGARREN GALDERA: NOLA?

- Edozein gizartetan eragile ezberdin asko daude eta haietako bakoitzak bere interes propioak dauzka.
- Bakoitzak norberaren interesak lortu nahi ditu. Horrek gatazka baten aurrean jartzen gaitu: taldeen aukerak desberdinak eta kontrajarriak izan daitezke.
- Arazo honen aurrean, beraz, konponbidea behar dugu.
- Konponbide hori **ERABAKIAK HARTZEKO METODO** bat da: sistema ekonomiko bat.
- Azken hamarkadetako sistema ekonomikoak bi mutur hauen artean mugitu dira:
 - Planifikaziozko sistema ekonomikoak (zentralizatuko ekonomiak):
 - Merkatu ekonomiak (merkatu libreak)

Planifikazio ekonomiak.

- Aginte politiko-ekonomikoak baliabideen esleipena erabakitzen du.
- Bere helburua ez da ahalik eta etekin handienak eskuratzea baizik eta errentaren banaketa “bidezkoa” lortzea.

Karl Marx (1818-1882)

Merkatu ekonomiak (merkatu libreak)

- Ez dago agintari ekonomikorik: norberak nahi duena erosi, saldu eta ekoizten du.
- Familiek eta enpresek erabakitzen dute Zer? Nola? Eta Norentzat?
- Zer? Enpresek familiek eskatzen dituzten ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzte, baldin eta ekoizpena **errentagarria** bada.
- Nola? Erabili behar diren faktoreak eta teknologia enpresak hautatzen ditu. Errentagarrienak direnak hautatuko dituzte.

Sistema ekonomikoak, normalean ez dira muturretan kokatzen. Erdiko puntu batean egoten dira.

SISTEMA MIXTOAK.

Estatuaren papera: Merkatuaren funtzionamendua bermatzea.

ADIBIDEAK:

- **KAPITALISMOA:** Baliabideen jabetza pribatua – Ekoizpenaren jabetza pribatua.
- **SOZIALISMO ERREALA:** Baliabideen jabetza publikoa – Ekoizpenaren jabetza.
- **EKONOMIA MIXTOA:** Baliabideen jabetza publiko eta pribatua - Ekoizpenaren jabetza publiko eta pribatua.

EKONOMIA MIXTOAK:

GEHIENETAN: Estatuak osasungintza, hezkuntza, justizia, azpiegiturak eta defentsa hartzen dituzte. Estatuaren parte-hartze maila ezberdina izan daiteke toki batetik bestera. Estatuak industria handiak ere har ditzake: altzairugintza, ikatza, ontzigintza...

HELBURUAK: Estatuak aipatutako sektoretan gastuak egingo dituzte populazioari zerbitzu horiek eman nahian. Helburua populazioa babestea izango da.

FINANTZIAZIOA: Estatuak gastu horiek egiteko dirua behar du (finantziazioa): normalean ZERGEN BIDEZ egiten da. Kasu batzuetan ZOR PUBLIKOA erabiltzen da.

HIRUGARREN GALDERA: NORENTZAT?

- Ekonomia batean urte batean ekoizten denari ekonomia horretako **ERRENTA** esango diogu. Errenta banatu egin behar da, produktu horiek gizartearen sektore ezberdinetara ailegatu behar dira.